



POR LA DEFENSA DE LOS DERECHOS DE LAS MUJERES PENSIONISTAS

Hoy, 5 de noviembre de 2021, las mujeres del Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria hemos celebrado una Asamblea, porque queremos hacer un llamamiento especial a participar en la movilización del **13 de noviembre** para la defensa y la mejora del Sistema Público de Pensiones. Esta movilización tendrá lugar en las principales capitales y pueblos de Euskal Herria, así como en otros pueblos y otras capitales del estado español.

Son muchas las reivindicaciones que tenemos las mujeres pensionistas, pero en la reforma que está a punto de aprobarse ni siquiera se nos nombra. No se menciona la mejora de la pensión de viudedad, ni la erradicación de la brecha de género, ni tan siquiera que una pensión mínima suficiente es imprescindible para que muchas mujeres dejen de vivir en condiciones de miseria. No cabe duda que la pobreza tiene rostro de mujer, pero en muchos casos tiene rostro de mujer mayor.

El día 13 también denunciaremos que no nos valen soluciones a medias, parcheos ni buenas palabras. En esta Asamblea hemos participado mujeres pensionistas que lunes tras lunes, durante más de tres años, hemos estado en la calle reivindicando, organizando, siendo portavoces y llevando a cabo todas las tareas necesarias para que las movilizaciones salgan adelante. De aquí salimos con el compromiso de seguir más fuertes y más organizadas si cabe, hasta conseguir unas pensiones de dignidad tanto para las personas pensionistas de hoy como para las futuras.

Una reivindicación fundamental para las mujeres pensionistas es la **pensión mínima** de 1.080 euros, pues muchas de nosotras, no alcanzamos esa cifra. Quien dice que en Euskadi o Nafarroa vivimos en un oasis, miente. En Euskal Herria también hay muchas mujeres que apenas pueden llegar a final de mes. En la Comunidad Autónoma Vasca hay casi 100.000 mujeres que cobran una pensión de viudedad y las mujeres **viudas** son las más olvidadas. **La pensión de viudedad** media para las mujeres es de 982 €. Pero la realidad es que una cuarta parte de las mujeres viudas cobran menos de 700 €. Y 63.000 viudas están por debajo de 1.080 €, la pensión mínima digna que reivindicamos. El 13 de noviembre estaremos en la calle para que se garantice el 100% para la pensión de viudedad y para que se complemente la pensión de viudedad hasta los 1.080 €.

La **brecha de género** en las pensiones no se produce porque no hayamos trabajado y nos hayamos dedicado principalmente a la maternidad y a las tareas de cuidados. Al contrario, las mujeres hemos trabajado duramente, muchas veces con dobles jornadas de trabajo agotadoras. Pero hemos tenido empleos precarios, con bajos salarios. Hemos tenido que renunciar a nuestros puestos de trabajo de forma parcial o definitiva, muchas veces de forma no deseada u obligadas por las labores de cuidados. Y todas estas situaciones han reducido la pensión que hoy cobramos. Por eso exigimos medidas estructurales para superar esa brecha de género, tanto en las pensiones como en los salarios.

Por todo lo dicho, las mujeres de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa presentes en esta asamblea llamamos a todas las mujeres de cualquier edad a salir a la calle el día 13 de noviembre.

PORQUE ...

LA PRECARIEDAD DE HOY ES LA PENSIÓN DE MISERIA DE MAÑANA
Y PORQUE ...

MIENTRAS NO CONSIGAMOS QUE SE NOS ESCUCHE, NOS TENDRÁN
MOVILIZADAS EN LAS CALLES

JUNTAS SOMOS MUY FUERTES, PERO ORGANIZADAS LAS MUJERES
SOMOS IMPARABLES

ASAMBLEA DE MUJERES PENSIONISTAS DE EUSKAL HERRIA

Bilbao, 5 de noviembre de 2021

EMAKUME PENTSIONISTAK, AURRERA!



EMAKUME PENTSIODUNEN ESKUBIDEEN ALDE

Gaur, 2021eko azaroaren 5a, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko emakumeok asanblada bat egin dugu, azaroaren 13ko Pentsioen Sistema Publikoa defendatu eta hobetzeko mobilizazioan parte hartzeko dei berezia egin nahi dugulako. Mobilizazio hori Euskal Herriko hiriburu eta herri nagusietan egingo da, baita espainiar estatuko beste herri eta hiriburu batzuetan ere.

Asko dira emakume pentsiodunok ditugun aldarrikapenak, baina onartzeaz dagoen erreforman ez gaituzte izendatu ere egiten. Ez da aipatzen alarguntza-pentsioa hobetzea, ezta genero-arrakala desagerraraztea ere, ezta gutxieneko pentsio nahikoa ezinbestekoa dela ere emakume askok miseria egoeran bizitzeari uzteko. Ez dago zalantzarik pobrezia emakume-aurpegia duela, baina, kasu askotan, adineko emakumearen aurpegia du.

Hilaren 13an ere salatuko dugu ez digutela balio erdizkako konponbideek, komeriek eta hitz onek. Asanblada honetan gauden emakume pentsiodunek parte hartu dugu asteleheneratik astelehenera, hiru urte baino gehiagoz, kaleko mobilizazioetan, gure eskaerak aldarrikatzen, antolatzen, bozeramaileak izaten eta mobilizazioak aurrera ateratzeko beharrezkoak diren lan guztiak egiten. Hemendik ateratzen gara indartsuago eta antolatuago jarraitzeko konpromisoarekin, gaur egungo eta etorkizuneko pentsiodunentzat duintasun-pentsioak lortu arte.

Emakume pentsiodunentzako funtsezko aldarrikapen bat **1.080 euroko gutxieneko pentsioa** da, gutako askok ez baitugu kopuru hori lortzen. Euskadin edo Nafarroan oasi batean bizi garela dioenak gezurra dio. Euskal Herrian ere badira hilabete bukaerara nekez irits daitezkeen emakume asko. Euskal Autonomia Erkidegoan ia 100.000 emakumek kobratzen dute alarguntza-pentsioa, eta **emakume alargunak** dira ahaztuenak. Emakumeentzako batez besteko alarguntza-pentsioa 982 €-koa da. Baina, egia esan, emakume alargunen laurdenek 700 € baino gutxiago kobratzen dute. Eta 63.000 alargun 1.080 €-tik behera daude, aldarrikatzen dugun gutxieneko pentsio duina. Azaroaren 13an kalean izango gara alarguntza-pentsioaren % 100 bermatzeko eta alarguntza-pentsioa 1.080 €-ra arte osatzeko.

Pentsioen genero-arrakala ez da gertatzen lan egin ez dugulako edota batez ere amatasunean eta zaintza-lanetan aritu garelako. Aitzitik, gogor egin dugu lan, askotan lanaldi bikoitz nekagarriekin. Baina lanpostu prekarioak izan ditugu, soldata baxuak dituztenak. Gure lanpostuei uko egin behar izan diegu partzialki edo behin betiko, askotan nahi gabe edo zaintza-lanek behartuta. Eta egoera horiek guztiek murriztu egin dute gaur egun kobratzen dugun pentsioa. Horregatik, egiturazko neurriak eskatzen ditugu genero arrakala hori gainditzeko, bai pentsioetan, bai soldatetan.

Horregatik guztiagatik, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako emakumeok azaroaren 13an kalera irteteko deia egiten diegu edozein adinetako emakumeei.

ZEREN ...

GAURKO PREKARIETATEA BIHARKO MISERIAZKO PENTSIOA BAITA

ETA ...

ENTZUNAK IZATEA LORTZEN EZ DUGUN BITARTEAN, KALEETAN
MOBILIZATUTA EGONGO BAIKARA

ELKARREKIN OSO INDARTSUAK GARA, BAINA ANTOLATUTA,
EMAKUMEOK, GELDIEZINAK GARA

EUSKAL HERRIKO EMAKUME PENTSIODUNEN ASANBLADA

Bilbo, 2021eko azaroaren 5a

EMAKUME PENTSIONISTAK, AURRERA!